

LAN ARLOKO ESPERIENTZIA EGIAZTATZEKO IRIZPIDEAK BALORATZEKO BAREMOA, 40 URTE IZANIK LAN ARLOKO ESPERIENTZIA EGIAZTATUTA DUTENAK ERIZAINZAKO GRADUAN SAR DAITEZEN

Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuak, graduako unibertsitate ikasketa ofizialetan ikasleak onartzeko prozeduren oinarriko arautegia ezartzen duenak, IV. atalean biltzen du lan arloko esperientzia egiaztatuaren bidez graduako ikasketetan sartzeko aukera UPV/EHUK arlo horretako araudia onartu zuen eta 2009ko irailaren 14an argitaratu EHAAn; ondoren, 2014ko ekainaren 17ko EHAAn. Araudia oinarri hartuta, Akademia Antolakuntzako Batzordeak honako irizpideak zehaztu ditu egiaztatze lan arloko esperientzia Erizaintzako Graduako ikasketan sartzeko, eta horren arabera, eskariak baloratu eta hurrenkera zehazteko.

Arautegiak dioenez, unibertsitatean bide honetatik sartu nahi duten pertsonak hiru baldintza hauek bete behar dituzte:

- 40 urteak beteak izatea unibertsitatean sartzeko urteko urriaren 1a baino lehen.
- Unibertsitateara beste bide batetik sartzeko aukera ematen duen ikasketa titulurik ez izatea.
- Egin nahi diren ikasketen arloan gutxienez bost urteko lan esperientzia izatea, eskaera egiten den dataren aurreko hamar urteen barruan.

Eskatzaileek baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordeak aurkeztutako merezimenduak baloratuko ditu, baldin eta eskaeran adierazi eta dokumentuen bidez egiaztatu badira, oinarrietan ezarritakoari jarraiki eta erreferentziatzen hartuta eskaerak aurkezteko epearen azken eguna. Eskatzaileek adierazitako merezimenduak lan arloko esperientzia egiaztatze irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- 1. Lan arloko esperientzia. Azken hamar urteetako esperientzia hartuko da kontuan, eta gehienez ere 5 puntu lor daitezke.** Puntuak lanean emandako aldi guztiak kontuan hartuta emango dira. Eskaerak baloratzeko hiru maila bereiziko dira, lan arloko esperientziaren eta Erizaintzako Graduaren arteko gertutasunaren eta egokitasunaren arabera. Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordeak erabakiko du zein maila dagokion merezimendu bakoitzari.
 - a. Inguru soziosanitarioan gaixoen zaintza zuzenarekin zerikusia daukan lan arloko esperientzia eta Osasuneko teknikariaren Lanbide Heziketako **titulu ofiziala** (Erizaintzako laguntzailea, Geriatria...): 0,5 urte oso bakoitzeko (365 egun) edo zati proportzionala.
 - b. Inguru soziosanitarioan gaixoen zaintza zuzenarekin zerikusia daukan lan arloko esperientzia eta prestakuntza laguntzailea, gerokultore... gisa: 0,4 urte oso bakoitzeko (365 egun) edo zati proportzionala.
 - c. Inguru soziosanitarioan gaixoen zaintzarekin zerikusia daukaten lanetan esperientzia izatea (zeladorea, jantokiko laguntzailea, farmaziako laguntzailea, odontologiako laguntzailea...), gaixoaren zaintza zuzena izan gabe: 0,3 urte oso bakoitzeko edo zati proportzionala
 - d. Bestelakoak: osasunaren adarrekin zerikusia ez daukan lan arloko esperientzia: 0,1 urte oso bakoitzeko edo zati proportzionala.
- 2. Prestakuntza: gehienez ere 2 puntu.** Baremoa hau izango da:
 - a. Lanbide Heziketako erdiko mailako titulu ofizialak, osasunaren adarrekoak: 0,5 puntu tituluko.
 - b. Lanbide Heziketako erdiko mailako titulu ofizialak, osasunaren adarrekoak ez direnak: 0,2 puntu tituluko.
 - c. Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua: 0,1 puntu.



- d. Etengabeko prestakuntza: 0,05 puntu prestakuntzan emandako 100 orduko, edo zati proportzionala.

3. **Hizkuntzak: gehienez ere 2 puntu.** Baremoa hau izango da:

- a. Goi mailako titulua: HEOko C1 –Hizkuntza Eskola Ofizialeko goi mailako titulua– edo baliokideak (EGA, IVAP eta Osakidetzako 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak, Hezkuntzako 2. hizkuntza eskakizuna...) puntu 1 titulu eta hizkuntzako.
- b. Erdi mailako titulua: HEOko B2 –Hizkuntza Eskola Ofizialeko erdi mailako titulua– edo baliokideak (IVAP eta Osakidetzako 2. hizkuntza eskakizuna, Hezkuntzako 1. hizkuntza eskakizuna...): 0,5 puntu titulu eta hizkuntzako.
- c. Oinarrizko titulua: HEOko B1 –Hizkuntza Eskola Ofizialeko erdi mailako titulua– edo baliokideak (IVAP eta Osakidetzako 1. hizkuntza eskakizuna): 0,25 puntu titulu eta hizkuntzako.
- d. Titulurik ez dutenen kasuan 0,1 puntu emango da gainditutako ikastaro ofizial bakoitzeko (HEO, euskaltegi homologatua).

4. **Elkarrizketa: gehienez puntu 1.** Elkarrizketa gainditu egin beharko da (0,5 puntu lortu) elkarrizketatua GAI izan dadin. Honakoak ere baloratuko dira:

Puntueltasuna
Hasierako agurra
Norbere buruaren aurkezpena
Ikasketak egiteko interesa
Zailtasunetan ematen den erantzuna
Ahozko komunikazioa eta hiztegia
Ahozkoa ez den komunikazioa
Itxura garbitasun eta higienearen aldetik.
Azken agurra

Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordeak ebatziko ditu baremoa interpretatu eta aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak.

Lan arloko esperientzia egiaztatzeko prozesua behin amaituta, Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordeak eskatzaileen ebaluazioa egingo du, modu honetara: GAI, baremoa egiterakoan 5 puntu edo gehiago lortu dutenak; eta EZ GAI, baremoa egiterakoan 5 puntu baino gutxiago lortu dutenak. Gai direnen kasuan lortutako puntuak adieraziko dira, Erizaintzako ikasketetan sartzeko hurrenkera ezartzeko.